



DURANGO
Udala • Ayuntamiento


"BARTOLOME ERTZILLA MUSIKA ESKOLA ETA

MAILA ERTAINEKO KONTSERBATORIOA"

ADMINISTRAZIO ERAKUNDE AUTONOMOAREN

ESTATUTUAK

- Hasierako onarpena: Osoko Bilkura 2007/10/25
- [BAO-ko iragarpena: 218. zk. 2007/11/08](#)
- [BAO-ko argitalpen osoa: 253. zk. 2007/12/31](#)
- Hasierako onarpena Erakunde Autonomoaren estatuen
[aldaketari, jende-aurrea 2015/11/10etik 2015/12/16ra](#)



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

"BARTOLOME ERTZILLA MUSIKA ESKOLA ETA MAILA ERTAINEKO KONTSERBATORIOA" ADMINISTRAZIO ERAKUNDE AUTONOMOAREN ESTATUTUAK

I. TITULUA IZAERA, EGINKIZUNAK ETA ATXIKIPENA

1. artikulua

Durangoko Udalak, dagozkion eskumenez, «Bartolome Erzilla Musika Eskola eta maila ertaineko Kontserbatorioa» izeneko Administrazio Erakunde Autonomoa sortu du, Toki Araubideko oinarriak arautzen dituen, apirilaren 2ko, 7/1985 Legearen 85. artikuluaaren arabera; eta Montevideo Etorbidea 7an ezarri dio egoitza. Nolanahi ere, kontseilu-errektoreak ahalmena du Erakunde Autonomoaren egoitza aldatzeko udalerrri barruan eta, baita ere, bulegoak jartzeko, aldatzeko edo kentzeko edozein tokitan, beti ere, aintzat hartuta kontseiluak berak ezarritako xedeak, eskumenak eta erak.

2. artikulua

«Bartolome Erzilla Musika Eskola eta maila ertaineko Kontserbatorioa» izeneko Administrazio Erakunde Autonomoa izaera juridiko publiko bereizia du; orobat, gaitasun juridiko eta jarduketa-gaitasun osoa du, edozein ekintza gauzatzeko, bere helburuak betetzeko eta ondasunak nahiz altxortegia zaintzeko beharrezko kontratuak egiteko; azkenik, kudeaketako autonomia ere badu, horiek guztiak legeetan nahiz estatutu haue-
tan aurreikusitakoari jarraiki.

3. artikulua

Bartolome Erzilla Musika Eskola eta maila ertaineko Kontserbatorioa, zerbitzu publiko bokazioa duen erakunde, udaleko kirol guneak kudeatzeko sortua da, herritar guztiek bizitza-kalitate hobea izan dezaten kirol praktikaren bidez.


4. artikulua

Helburu horiek erdiesteko, ondoko eskumenak ditu Bartolome Erzilla Musika Eskola eta maila ertaineko Kontserbatorioak:

- a) Erakundea kokatzen deneko instalazioak atontzeko, zaintzeko eta administratzeko eskumena.
- b) Instalazio horien erabilera eta, halaber, irakaskuntza-jarduerak eta beste edozein eratakoak koordinatzeko eskumena.
- c) Beste erakunde publiko nahiz pribatu batzuekin ondasun higiezinak edo higigarriak kudeatzeko hitzarmenak sinatzeko eskumena, betiere, Erakunde Autonomoaren helburuak lortzera bideratuta.
- d) Organismoaren zerbitzu guztiak antolatzeko eskumena.
- e) Erakunde publikoei zein pribatuei diru-laguntzak eskatzeko eta onartzeko eskumena.
- f) Maileguko eta altxortegiko eragiketak nahiz kauzioko eragiketak hitzartzeko eskumena, betiere, eragiketa horiek Aurrekontua Betearazteko Oinarrietan ezarritako muga barnean badaude.

5. artikulua

Durangoko Udalak, unean-unean kirol-gaietan eskumena duen zinegotzigoaren bidez eta estatutu hauetan aurreikusitako moduan, Erakunde Autonomoaren gaineko tutoretza izango du, Udalak, Tokiko Administrazio Publikoa izanik, bere gain duen agintearen bidez, eta betiere erakunde autonomoak gauzatu behar dituen helburuak betetzeko beharrekia duen autonomian kalterik eragin gabe.



II. TITULUA. GOBERNUKO ORGANOAK

6. artikulua

1. Hauek izango dira Erakunde Autonomoaren gobernu-organoak:

- a. Kontseilu-errektorea.
- b. Lehendakaria.
- c. Gerentea.

2. Udalbatzako idazkari bera edo haren eskuordea izango da Erakunde Autonomoaren idazkaria. Era berean, Udaleko kontu-hartzailearen eskumenekoak izango dira Durangoko Euskaltegiko kontu-hartze zereginak, beti ere, legedi aplikagarriaren arabera.

7. artikulua

1. Kontseilu-errektorearen ardura izango da UKE gobernatzea eta kudeatzea, eta ondoko kideak izango ditu:

- Jatorrizko presidentea: Udaleko alkate-udalburua.
- Presidente eraginkorra (aurrerantzean presidentea): Kontseilu Errektorearen proposamenez, alkateak eskuordetuta, izendapen hori hartuko duen zinegotzi eta erakundeko batzordekidea.
- Batzordekideak: 10 batzordekide, guztiak Udalbatzako kide. Osoko Bilkuran izendatuko dira, Udalbatzan udal-taldeek duten ordezkaritzaaren proportzio berean, talde bakoitzeko bozeramaleen proposamenez. Batzordekide titularren ordezkioak ere era berean izendatu ahal izango dira, bai behin-betiko bai batzar zehatz baterako, Kontseiluko presidenteari zuzendutako idatzi baten bidez. Nolanahi den ere, alderdi politiko guztiak egongo dira ordezkatuta.
- Bokala ahotsarekin baina bozkarik gabe, gurasoen ordezkaria.
- Idazkaria: Udaleko idazkari nagusia edo haren eskuordeko udal funtzionarioa (bozez bai baina botorik gabe).
- Esku-hartzailea: Udaleko esku-hartzaile nagusia edo haren eskuordeko udal funtzionarioa (bozez bai baina botorik gabe).

2. Gerenteak kontseilu-errektorearen bileretan parte hartuko du, bozez baina bozkarik gabe.


3. Erakunde Autonomoko nahiz beste administrazio batzuetako funtzionarioak edo langileak, presidentek berariaz hala eskatuta, kontseilu Errektorearen bileretara joan ahal izango dira, bozez baina botorik gabe, bertan jorratuko den gaietakoren baterako haien azalpenak beharko direla irizten bada. Era berean, beste zenbait pertsonari ere Kontseilu Errektorearen bileran parte hartzeko gonbita egingo zaie, Kontseilu Errektorearen ustez, bileran jorratuko den gai baten inguruan beren iritzia entzutea komenigarritzat jotzen denean, edo pertsona horiek bileran parte hartzea egokitzat jotzen denean.

III. TITULUA. GOBERNU-BILKURAREN EGINKIZUNAK

8. artikulua

Kontseilu-errektorearen eskumenak honako hauek dira:

- 1.- Erakunde Autonomoaren jarduteko eta kudeatzeko estrategia zehaztea eta urteko ekintza-plana onartzea.
- 2.- Organismo Autonomoa osatzen duten unitateak eta zerbitzuak eta gerentearen jarduketa kontrolatzea eta fiskalizatzea, Udalbatzari dagozkion eskumenei kalterik eragin gabe.



3.- Urteko Kontuak onartzeko proposamena egitea. Urteko Kontu horiek, gero, Udalbatzari igorriko zaizkio, behin betiko onar daitezen, tokiko ogasunak arautzeko legedian aurreikusitako izapideak beteta.

4.- Epaitegi, auzitegi, aginte, administrazio eta korporazio guztien aurrean ekintza eta helegite guztiak gauzatzea, Erakunde Autonomoaren ondasunak eta eskubideak defendatzeko. Era berean, egoki denean, erre-kurtsoan atzera egitea edo horri amore ematea, betiere tokiko araubidearen legedian ezarritakoarekin bat, eta Udalbatzari horren guztiaren berri ematea.

5.- Udalbatzari estatutu hauek bertan behera uztea, aldatzea edo zabaltzea proposatu ahal izango zaio.

6. Erakunde Autonomoaren Araudiak Ordenantzak eta zerbitzuen jardunbide-arauak baita Kontseilu Errektore beraren jardunbide-arauak ere onartzeko, aldatzeko, zabaltzeko eta indarrean jartzeko proposamena egitea Udalbatzari.

7. Beste administrazio, erakunde, entitate edo pertsona fisiko zein juridiko batzuekin egin beharreko hitzarmenak, itunak eta lankidetzako onartzea.

8. Administrazio Publikoen kontratuen gaineko legedian eta tokiko araubidean aplikatzekoa den gainerako legedian aurreikusitakoarekin bat, kontratazioa egitea.

9. Erakundearen eskumen-mugen barnean, Aurrekontua Gauzatzeko Oinarrietan ezarritako gastuak egin eta horretarako baimena ematea.

10. Ondasun higiezinak erabiltzeari dagokionez, horren araubide juridikoa tokiko erakundearen ondasunak arautzen dituen araudiaren arabera izango da.

11. Arestian aipatutako muga barnean, Erakunde Autonomoaren beraren ondasunak baita dohaintzetatik, diru-laguntzetatik eta legatuetatik jasotakoak bere gain hartzea, kudeatzea eta administratzea. Era berean, erakunde autonomoaren ondasunen eta eskubideen inbentarioa onartzea, urtero zuzentzea eta eguneratuta edukitzea, eta eskumeneko zinegotzigo edo sailera igortzea.

12. Maileguko eta altxortegiko eragiketak nahiz kauzioko eragiketak hitzartzea, betiere, Aurrekontua Beteazteko Oinarrietan ezarritako muga barnean.

13. Erakundeko aurrekontua, langileak eta lanpostu guztien zerrenda edo katalogoa proposatzea, Udalbatzaren eskumeneko organoak onar dezan.

14. Udaleko Osoko Bilkurari zergak, prezio publikoak eta eskubide publikoko gainerako ondasun-prestazioak ezar edo/eta arau ditzan proposatzea.

9. artikulua

Erakunde Autonomoko presidenteak honako eskuduntza hauek izango ditu:

1. Kontseilu Errektorearen bileren deialdia egitea, horien buru izatea, horiek etetea eta amaiaztatzea, eta, bozketetan berdinketarik egonez gero, kalitateko botoarekin berdinketa haustea.


2. Kontseilu Errektorearen akordioak bete daitezela agintzea.

3. Erakunde Autonomoaren aurrekontuaren aurreproiektua eratzea, gerentea, esku-hartzailea eta horretarako izendatutako langileak bertan daudela.

4. Erakundearen eskumen-muga barnean, Aurrekontua Gauzatzeko Oinarrietan ezarritako gastuak egin eta horretarako baimena ematea.

5. Obligazioak onartzea eta kitatzea eta ordainketak agintzea.

6. Kontratazio-organoa izatea, kontratuen eta toki-araubidearen arloetan indarrean dagoen legediarekin bat.



7. Ondasunak eta eskubideak eskuratzea eta besterentzea, kontratuen eta toki-araubidearen arloetan indarrean dagoen legediarekin bat.

8. Erakunde Autonomoa ordezkatzeko auzitegi, epaitegi, administrazio, korporazio, autoritate, notario nahiz partikularren aurrean, eta besteren bati erakundea ordezkatzeko agintea eta boterea ematea, edo bere burua ordezkatzeko, bidezko denean.

9. Erakunde Autonomoa defendatzeko ekintza judizial eta administratiboak gauzatzea, bere eskumeneko arloetan, nahiz eta arlo horiek beste erakunde bati eskuordetuta egon. Era berean, premiazko egoeretan, Kontseilu Errektorearen eskumeneko arloetan ere eskumen horiek beteko ditu, eta hori berresteko Kontseilu Errektoreari egoeraren berri emango dio egiten den lehen bileran.

10. Larrialdi-egoeretan, bere erantzukizunpean, erabaki egokiak eta beharrezkoak hartzea. Halakorik jazoz gero, horren berri eman beharko dio kontseilu-erredaktoreari lehen bileran.

11. Dokumentuak, eskriturak eta polizak izenpetzea.

12. Kredituko eragiketak zehaztea, Tokiko Ogasunen eta aurrekontua gauzatzeko udal-arauen gainean indarrean dagoen legediarekin bat.

13. Erakunde Autonomoaren zerbitzuen eta unitateen antolamendu-egitura onartzea baita horri dagokion aurrekontu-zuzkidura ere, hori guztia indarrean dagoen araudiarekin bat eta aurrekontu-mugen barruan, kasu bada.

14. Erakundearen interes zehatzak kudeatzeko eta administratzeko eskumenak, bertako beste organo bati esleitu gabekoak betetzea baita Kontseilu Errektorean eskuordetzan emandako beste eskumen guztiak ere.

10. artikulua

1. Gerentea Udalbatzako lanpostuen zerrendan plaza hori betetzen duena izango da.

2. Kontseilu-erredaktoreak ezarritako arauak eta lehendakariaren argibideei jarraituz, honako hauek dira gerentearen eginkizunak:

- a. Erakundea zuzentzea.
- b. Erakundearen estrategia osoaren diseinuaz arduratzea.
- c. Erakunde Autonomoan prozesu-kudeaketa eta kalitate-politika ezartzeko ardura, betiere, eraginkortasunaren helburua bilatuz kudeaketa arloan.
- d. Prezioen politika eta aurrekontu politikaren ardura izatea.
- e. Erakunde Autonomoaren giza-baliabideen ardura izatea.
- f. Erakunde Autonomoari atxikitako baliabideak behar den moduan erabili daitezen arduratzea.

IV. TITULUA. KIDE ANITZEKO ORGANOETARAKO ARAUAK ETA BILKURA-ARAUBIDEA


11. artikulua

1. Kontseilu Errektorearen bilkurak hiru motakoak izan daitezke:

- a) Ohikoak
- b) Ez-ohikoak
- c) Premiazko ez-ohikoak

2. Ohiko bilerek aurretik ezarritako aldizkakotasuna dute. Aldizkakotasun hori Kontseilu Errektorearen beraren akordioz finkatuko da, Udalbatza bakoitza eratzeko bilkura egin osteko bi hilabeteen barruan egin beharko den ez-ohiko bilkuran. Ohiko bilkuren gai-zerrendan galde-eskeen atala jasoko da beti.

3. Ez-ohiko bilkurarako deialdia, berriz, lehendakariak egin du, bere ekimenez edo, gutxienez, botoa emateko eskubidea duten Kontseiluko kideen laurdenak hala eskatuta, eta kide batek ere ezingo du ez-ohiko hiru



bilkurarako eskaririk egin urtean. Azken kasu horretan, ez-ohiko bilkura egiteko gehienez ere hamabost eguneko epea egongo da eskatzen den egunetik, eta gai hori ezin da ohiko bilkura baten gai-zerrendan edo gai gehiago dituen gai-zerrendan sartu, deialdiaren eskatzaileek horretarako berariazko baimena eman ezean.

Lehendakariak epe horretan ez badu ez-ohiko bilkura deitzen, epe hori amaitu osteko hurrengo hamar egun baliodunera egingo da, eguerdiko hamabietan, eta idazkariak horren berri emango die kontseiluko kide guztiei, arestian aipatutako epea amaitu eta hurrengo egunean bertan. Presidenteak edo hura legez ordeztu behar duena ez badaude, bertaratutako kide zaharrena izango da bilkuraren buru.

4. Jorratu beharreko gaia(k) horren premiazkoa(k) izanik, gutxienez bi egun baliodun lehenago ez-ohiko bilkura deitzerik ez dagoenean, premiazko ez-ohiko bilkura deituko du presidenteak. Halakoetan, eguneko gai-zerrendaren lehen puntuan Kontseiluak premia horri buruzko azalpena eman beharko du.

Eta batzak premia hori ez badu hautematen, bilkura amaitutzat joko da.

12. artikulua

1. Kontseilu-errektorearen bilera arruntetako nahiz berezietako deialdiak lehendakariak egingo ditu bilera-eguna baino gutxienez bi egun baliodun lehenago, eta, deialdiarekin batera, eguneko gai-zerrenda eta aktak bidaliko dizkie.

2. Batzarretako espedienteak kontseilu-errektoreko kideen esku egongo dira Erakunde Autonomoaren idazkaritzan deialdia egin den egun berean, nahi duenak aztertu eta kontsultatu ditzan.

13. artikulua

1.- Kontseilu Errektorea baliozko moduan eratuta geratuko da ohiko edo ez-ohiko bilkura, boto-eskubidea duten kideen heren bat bertan dagoenean. Quorum horri bilkura osoan eutsi beharko zaio.

2. Erakunde Autonomoaren presidenteak eta idazkariak edo legez ordeztzen dituztenek nahitaez egon beharko dute bilkuran.

3. Egoera hori ez bada lortzen, bilkura bigarren deialdian egingo da, lehen deialdirako adierazitako ordutik ordubete geroago. Bilkura baliozko moduan egin dadin, botorako eskubidea duten Kontseiluko hiru kide egotea nahikoa izango da, eta Erakunde Autonomoaren presidenteak eta idazkariak edo legez ordeztzen dituztenek bertan egon beharko dute nahitaez.

4. Aurreko paragrafoetan xedatutakoa ez da botorako eskubidea duten Kontseilu Errektoreko kideen laurdenak eskatutako ez-ohiko bilkuretan aplikagarria izango, horren araubide zehatza estatutu hauetako 11.3 artikuluan jaso baita.

14. artikulua


1.- Estatutu hauetan aurreikusitako kasuetan izan ezik, Kontseilu Errektorearen akordioak gehiengo soilez hartuko dira, eta berdinketak presidenteak ebatziko ditu kalitateko botoaren bidez.

2. Kontseilu Errektorearen kideen gehiengo absolutuaren aldeko botoa beharko da estatutu hauek indargabetzeko, aldatzeko edo zabaltzeko proposamena egiteko, baita erakundea desagiteko proposamena egiteko ere.

3. Deialdian jaso gabeko gaiei buruz ez-ohiko bilkuretan hartutako erabakiak baliogabeak izango dira, baita ohiko bilkuren eguneko gai-zerrendan jaso gabeko gaiei buruzkoa ere. Salbuespen izango da Kontseilu Errektorean boto-eskubidea duten kideen gehiengo absolutuz gai hori premiazko dela ezartzen denean.

4. Kontseilu Errektorearen kideen botoa pertsonala eta eskuordeezina da, eta baiezkota edo ezezkoa izango da. Era berean, botoa emateari uko egin ahal izango zaio.

5. Bozketak ohikoak, izendunak edo sekretupekoak izan daitezke. Bozketarako sistema arrunta ohiko sistema izango da. Bozketa izendunak eta sekretupekoak tokiko araubideari buruz indarrean dagoen legedian aurreikusitako kasuetan eta moduan egingo dira.



15. artikulua

1.- Kontseilu Errektorera Akten liburua egingo da, eta behar bezala orriztatuta eta koadernatuta egongo da. Gainera, orrialde bakoitzean presidentearen sinadura eta Erakunde Autonomoaren zigilua agertuko da, eta lehenengo orrialdean irekitzeko eginbidea izango du, idazkariak sinatuta. Bertan orrialdeen kopurua eta seriea adieraziko da, eta, beharrezkoa bada, baita akordioak transkribitzeari ekin zitzaion eguna ere.

2. Aktetan hainbat datu adieraziko dira: batetik, bilkura non, zer ordutan, egunetan, hilabeteen eta urtean egin den; bestetik, presidentearen, bertaratutako kideen eta aitzakia azalduta nahiz azaldu gabe bertaratu gabeen izen-abizenak zein diren; bilkura ohikoa edo ez-ohikoa den; lehen edo bigarren deialdian egin den; idazkari edo haren legezko ordezkaria bertan den eta egoki denean. esku-hartzailetzaren ardura duten funtzionarioak bertan diren. Era berean, jorratutako gaiak eta emandako iritzien laburpena jasoko da, baita bozketen emaitzak eta hartutako erabakien xedapenezko atala ere. Azkenik, presidenteak bilkura amaitutzat noiz jo duen jasoko da.

3. Aktak idazkariaren sinadurarekin eta presidentearen oniritziarekin baimenduko dira.

16. artikulua

Estatutu hauetan Kontseilu Errektorearen jardunbideari buruz jaso ez den guztirako, AJAn Osoko Bilkuraren jardunbideari buruz jasotako xedapenak beteko dira, baita tokiko udalbatzen antolaketari buruz indarrean dauden gainerako arauetan xedatutakoa ere.

17. artikulua

1. Kontseilu Errektorearen akordioek eta lehendakariaren ebazpenek administrazio-bidea amaiarazten dute, baina aukerako berraztertze-errekurtsoa jar dakieke, akordioak eta ebazpenak egin dituen organo beraren aurrean. Berraztertze-errekurtsorearen ebazpenek ere administrazio-bidea amaitzen dute; bete beharrekoak dira, eta, horien aurka egiteko, auzitegi eskudunetara jo beharko da.

2. Gerentearen ebazpenen aurka gorako errekurtsoa jarri ahal izango da presidentearen aurrean. Gorako-errekurtsorearen ebazpenek administrazio-bidea amaitzen dute; bete beharrekoak izango dira, eta, horien aurka egiteko, auzitegi eskudunetara jo beharko da.

3. Gai zibilei nahiz laneko gaiei dagozkien aurretiazko erreklamazioak, berriz, Gobernu Bilkurak ebatziko ditu.

IV. TITULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA

18. artikulua

1. Tokiko araubidearen xedapenak, Udalaren Osoko Bilkuraren jardunbidea arautzeaz gain, aurreko artikuluetan Erakunde Autonomoaren jardunbideari dagokionez aurreikusitako guztia ere arautuko dute.


2. Prozedurari dagokionez, berriz, apirilaren 2ko 7/1985 Legean eta Estatuko Administrazio Prozedura Erki-dearen Legedian xedatutakoari jarraituko dio Erakunde Autonomoak.

19. artikulua

1.- Erakundearen gobernu-organismoek beren eskumenei buruz ezarritako ebazpenen eta erabakien aurka aukerako berrezartze-errekurtsoa jarri ahal izango da.

2.- Erakundearen behin-betiko egintza eta akordioen aurka (alegia, bai berrezartze-errekurtsoren erabakitze-koak, berariazkoak nahiz ustezkoak bai gobernu-organismoek bere eskumenen barruan emandakoak) adierazitako errekurtsorik jarri ez bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, indarrean dagoen legediak aurreikusitako moduan eta epeetan.

3.- Ekintza zibil eta laboralak gauzatu aurreko erreklamazioak Erakunde Autonomoaren presidenteari zuzenduko zaizkio, hark ebatzi beharko baititu. Salbuespen izango da erreklamazioaren zioa dela-eta erabakiak



Kontseilu Errektoreari edo udal-organoren bati dagozkion eskuduntzen bati eragiten badio. Kasu guztietan, aurretiaz espedientea izapidetu beharko da, eta, espediente horretan, beharrezkoak diren aurrekariak, txostenak, dokumentuak eta datuak jaso beharko dira.

4. Erakunde Autonomoaren presidenteak Kontseilu Errektoreari jakinarazi beharko dizkio Ekintza zibil eta laboralak gauzatu aurreko erreklamazioei buruz emandako ebazpenak, ebazpen horiek eman zirenetik egiten den lehen bileran.

V. TITULUA. GIZA BALIABIDEAK

20. artikulua

Erakunde Autonomoak beharrezko langileak –funtzionarioak nahiz lanekoak– izango ditu, eta Durangoko Udalaren Osoko Bilkurak onartutako plantilla organikoaren eta lanpostu-zerrendaren arabera zehaztuko dira langileen kopurua, kategoria eta zereginak. Osoko Bilkuraren egitekoa izango da, orobat, aipatutako baliabide horien bidez Organismoko langileen ordainsariak zehaztea, eta finkoak edo aldizkakoak ez diren ordainsari osagarriak banatzea.

21. artikulua

1.- Honako hauek dira zerbitzuaren langileak:

- a) Erakunde Autonomoan lan egiten duten Udaleko funtzionarioak
- b) Lan-eskubideko erregimeneko langileak eta behin-behineko langileak, konfiantzako edo aholkularitza bereziko lanpostuak dituztenak

22. artikulua

Presidenteak bere zerbitzurako beharrezkotzat jotzen dituen langileak zuzenean izendatuko ditu, langile horiek, korporazioko lan-kontratadun langile finkoak izan gabe ere, aplikagarria den legediarekin bat, eta plantillaren arabera lanpostuak beteko ditu, Kontseilu Errektoreak kasuan kasu zehazten dituen hornikuntzako prozesuak ezarrita.

23. artikulua

Ordainsarien baldintzak zehazteko eta aldatzeko orduan, Durangoko Udaleko eskumeneko organoak horren gainean onartutako arauari egokitu beharko zaie beti.

24. artikulua

Bai langile horiei dagokienez bai unean uneko beharrianak betetzeko kontratatutako langileei dagokienez, kasu batean zein bestean Administrazio Publikoen zerbitzupeko langileen erregimena arautzen duten arau berak bete beharko dira, lanpostuak, ordainsariak, hautespena, lanpostu hornikuntza, prestakuntza eta administrazio-egoerak aintzat hartuta, berdintasun, meritu eta gaitasunaren printzipioekin bat.


VI. TITULUA. ONDAREA, BALIABIDE EKONOMIKOAK ETA KONTRATAZIO-ARAU BIDEA

25. artikulua

1. Osagai hauek izango ditu Erakunde Autonomoaren ondareak: batetik, Udalak Organismoari bere helburuak betetzeko atxikitzen dizkion ondasunak, eta, bestetik Organismoak berak bere funtsekin ordainduta eskuratutakoak.

2. Montevideo Etorbideko 7ko eraikina da Musika Eskolari eta maila ertaineko Kontserbatorioari atxikitako ondasun higiezinak.

3. Ondasun eta eskubide atxikiek jatorrizko kalifikazio juridikoa izango dute; hala, atxikipenean zehaztutako helburuak betetzeko erabilerako eta kontserbazioko ahalmenak besterik ez ditu izango Euskaltegiak.



4. Eskurapena adostutakoan, inplizituki ulertzen da Euskaltegiaren helburuei dagozkien ondarezko ondasunen eta eskubideen xedematea.

5. Ondasun horiek kontserbatzeko, egokiro kudeatzeko eta defendatzeko, jabari publikoari buruz legez ezarritako eskubide eta prerrogatiba guztiak izango ditu Erakunde Autonomoak.

6. Erakunde Autonomoak ondasunen eta eskubideen –jabetzan dituenen nahiz atxikien– inbentarioa egin, eta eguneratuta izango du (ondasun suntsikorrak ez dira inbentarioan sartuko). Inbentarioa urtero aztertuko da, abenduaren 31 erreferentziatzat hartuta, eta kontseilu-errektoreak onartu beharko du.

7. Arlo honi buruz estatutuetan aurreikusi ez diren gainerako gaitan, Herri Administrazioetako ondareari buruzko araudia ezarriko da.

26. artikulua

Erakunde Autonomoaren baliabide ekonomikoek iturri hauek izan ditzakete:

- a) Tasak eta prezio publikoak.
- b) Bere ondaretik datozen diru-sarrerak eta zuzenbide pribatuko bestelakoak.
- c) Durangoko Udalak, bere aurrekontuen kargura, egiten dizkion ekarpenak.
- d) Edozein erakunde publiko edo pribatuek emandako laguntzak eta transferentziak.
- e) Kreditu-eragiketak.
- f) Zuzenbide publikoko bestelakoak.

27. artikulua

1. Organismo Autonomoak aurrekontu propioa izango du, eta Toki Ogasunak arautzeko legedian nahiz Udalaren legedi orokorrean aurreikusitakoa bete beharko du.

2. Organismo autonomoaren aurrekontua lehendakariak gauzatuko du. Ondoren, Kontseilu Errektoreak onartu, eta Udalari igorriko zaio urte bakoitzeko irailaren 30a baino lehen, Udalak onar dezan.

3. Gastuen Aurrekontuan jasotako kredituak, horien aldarazpenak, gauzapenak eta likidazioak Tokiko Ogasunak arautzeko legediak eta Udal Arauak horretarako ezarritakoari jarraiki egingo dira.

4. Erakunde Autonomoaren diruzaintza Tokiko Ogasunak arautzeko legedian ezarritakoaren arabera gauzatuko da.

5. Erakunde Autonomoa kontabilitate publikoko erregimenari lotuta dago, Tokiko Ogasunak arautzeko legedian ezarritakoari jarraiki.

6. Erakunde Autonomoaren egoera eta kontuak presidenteak berak eman eta proposatuko ditu, Kontseilu Errektorea jakinaren gainean egon dadin. Egoera eta kontu horiek Udalera igorriko dira Tokiko Ogasunak arautzeko legedian ezarritako epearen barruan, bertan aurreikusitako izapideen ostean, eskumeneko organoak onar ditzan.

28. artikulua


1. Erakundearen kontratazioak Herri Administrazioen kontratazio-arau orokorren arabera egingo da.

2. Organo eskudunak kontratuak hitzartzeko baimena eman beharko du, organo horrek alde zuzenetik zehaztu dituen diru-kopuruak gainditzen badituzte.

VII. TITULUA. UDALAREN TUTORETZA AHALMENAK

29. artikulua

Hauek izango dira Udalaren tutoretza-ahalmenak:



- a) Euskaltegiko gobernu-organoak kontrolatzeko eta ikuskatzeko ahalmena.
- b) Aurrekontua –inbertsio-plana eta finantza-programak barne– eta Zerbitzuen Araudi Orokorra onartzeko ahalmena.
- c) Kontu orokorra onartzeko ahalmena.
- d) Euskaltegiko organoen ebazpenen aurkako errekurtsoei buruz, estatutu hauetako 18. artikuluan adierazitakoen gaineko ahalmenak.
- e) Osoko Bilkurari eta alkateari giza baliabideei buruz egotzitako ahalmenak.

VIII. TITULUA. ESTATUTUAK ALDATZEA ETA ERAKUNDE AUTONOMOA DESEGITEA

30. artikulua

- 1. Estatutu hauek aldatzeko, horiek berak onartzeko eskatzen ziren izapide berberak bete beharko dira.
- 2. Kontseilu-errektoreak har dezake ekimen hori gehiengo osoz, edo, bestela, Durangoko Udalak berak.

31. artikulua

- 1. Erakunde Autonomoa Durangoko Udalaren erabakiaren bidez desegin ahal izango da, tokiko erregimeneko legedian ezarritako moduan.
- 2. “Erakunde Autonomoa” desegiten bada, bere ondare guztia –aktiboan jasotako hazkundeak eta ekarpenak barne– Durangoko Udalaren eskuetara igaroko da. Itzultitako ondasunek eduki dezaketen afektazioa galduko dute, eta Udalak zuzenean eta erabat erabiltzeko moduan jasoko ditu. Nolanahi ere korporazioen, erakundeen, etab.en jabetzapeko instalazioek beren titularrenak izaten jarraituko dute.

AZKEN XEDAPENA. Estatutu hauek indarrean sartuko dira Udaleko Osoko Bilkurak onartu eta BAO-n argitaratzen direnean, eta indarrean izango dira aldatu eta bertan behera uzten ez diren bitartean.

Jendaurrean erakusten da, Durangon, 2007ko urriaren 25(e)an